

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK- BOMBEROS FORALES DE ÁLAVA

2021eko otsailaren 8ko ALHAOn (15. zk.) argitaratutako 404 zenbakiko iragarki honen hutsen zuzenketa: Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluak hartutako erabakia, Arabako Suhiltzaileak erakunde autonomoko suhiltzaile-gidarien lanpostuak aldi baterako betetzeko kontratazio zerrenda zabaltzeko hautaketa prozesuaren deialdi publikoa egiten duena

Iragarkiaren euskarazko bertsioan akats bat antzeman denez, honako hutsen zuzenketa hau argitaratzen da:

Hau dioen lekuan:

Lehen taldea osatuko dute, gutxienez, urtebetean suhiltzaile, suhiltzaile gidari edo kabo gisa zerbitzuak eman dituztela egiaztatzen duten hautagaiek, betiere Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak edo beste administrazio publiko baten Prebentzio, Sute Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzu batek emandako prestakuntza ikastaro ofizial bat gainditu dutela egiaztatzen badute, suhiltzaileen berariazko arloan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandakoaren antzeko eduki homologagarriekin. Ez da bereiziko nork ematen duen trebakuntza hori, hau da, ez du lehentasunik izandako administrazio batek beste baten gainean. Talde honetako kideak honela antolatuko dira:

Lehentasun ordenaren arabera, lortutako puntuazioaren arabera, 7. atalean adierazitako moduan.

Bigarren taldea osatuko dute, parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten onartutako gainerako hautagaiek, hots, urtebete baino gutxiagoan suhiltzaile, suhiltzaile gidari edo kabo gisa zerbitzuak eman dituztela egiaztatzen dutenek, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak edo beste administrazio publiko baten Prebentzio, Sute Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzu batek suhiltzaileen berariazko arloan prestakuntzarik ez dutenek, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandakoaren antzeko eduki homologagarriekin.

Hau esan behar du:

Lehen taldea osatuko dute gutxienez urtebetean suhiltzaile, suhiltzaile gidari edo kabo gisa zerbitzuak eman dituztela egiaztatzen duten hautagaiek, edo egiaztatzen dutenek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak suhiltzaileen alorrean emandako berariazko prestakuntza ikastaro ofizial bat gainditu dutela edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ematen duenaren antzeko edukiak dituen eta beste administrazio publiko baten Prebentzio, Sute Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak emandako berariazko prestakuntza ikastaro ofizial homologagarri bat gainditu dutela. Ez da bereiziko nork ematen duen prestakuntza hori; hau da, ez du lehentasunik izango administrazio batek emandakoak beste batek emandakoaren gainetik. Talde honetako kideak honela antolatuko dira:

7. atalaren arabera lortutako puntuazioaren arabera; arabera;

Bigarren taldea osatuko dute parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten onartutako gainerako hautagaiek, hots, suhiltzaile, suhiltzaile gidari edo kabo gisa zerbitzuak urtebeteko epea baino aldi laburragoan eman dituztela egiaztatzen dutenek, eta/edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak suhiltzaileen alorrean emandako berariazko prestakuntza ikastaro ofizial bat gainditu

ez dutenek edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ematen duenaren antzeko edukiak dituen eta beste administrazio publiko baten Prebentzio, Sute Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak emandako berariazko prestakuntza ikastaro ofizial homologagarri bat gainditu ez dutenek.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 9a

Zuzendari-kudeatzailea

FRANCISCO JAVIER CARRO IGLESIAS